

## **EBAZPENA, 2025EKO MAIATZAREN 14KOA, ERALDAKETA DIGITALAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARIARENA. GAIA: ZER DIRU-HORDINURA EGONGO DIREN IKASTETXE PUBLIKOENTZAT ETA UDAL TITULARTASUNEN IKASTETXEENTZAT, 2025-26 IKASTURTEAN LANBIDE-HEZIKETAKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASLEEK PRESTAKUNTZA-JARDUERAK EGIN DITZATEN**

Otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritzari, besteak beste, lanbide-heziketako araubide orokorreko irakasleen etengabeko prestakuntza-planak diseinatu, aplikatu eta egiteko eginkizuna esleitzen dio, plan horien guztien eguneratzera eta espezializatzerara hedatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak 31. artikuluan ezartzen duena kontuan hartuta, Lanbide Heziketan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko, irakasleek prestakuntza jaso beharko dute ikasgelako ikaskuntza-metodologia aktibo berrien ikaskuntzan eta garapenean, bai eta eduki profesional espezifikoen ere. Horren guztiaren helburua irakasleek ingurune konplexuetan dituzten gaitasunak hobetzea da. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak irakasleak prestatzeko programak ezarriko ditu.

Ildo beretik, Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak, irakasleen prestakuntzari dagokionez, xedatzen du etengabeko prestakuntza Lanbide Heziketako Sistemako irakasle eta prestatzaile guztien eskubidea eta betebeharra dela, bai eta administrazioen eta lanbide-heziketa ematen duten ikastetxeen erantzukizuna ere, eta arreta berezia eskainiko diotela berrikuntza eta ikerketa aplikatuko prestakuntzari, ekintzailetzari, digitalizazioari eta atzerriko hizkuntzei. Konpetentzia digitaletan etengabeko prestakuntza bermatuz, horietan diseinu eta irisgarritasun unibertsala txertatuz, bai euskarri teknologikoen erabilerari dagokionez, bai materialak lantzeari eta irakasteko metodologia berritzaileak hartzeari dagokienez.

Lanbide-heziketako ikastetxeek, irakasleen parte-hartzearekin, ikastetxeko prestakuntza-planak diseinatzen dituzte, Lanbide Heziketako euskal sistemaren beharrei erantzuteko. Plan hori Hezkuntza Sailaren web-orrian eskuragarri dagoen Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean jasota dago. Irakasleen prestakuntza-premiak detektatzen dituzte eta landu beharreko prestakuntza-jarduerak identifikatzen dituzte, ikastetxearen proiektu estrategikoaren lehentasunezko helburu eta jardueretan eta Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren 7. ardatz estrategikoetan oinarrituta. Hortik etorriko dira dirulaguntzen deialdi honetan eskatzen diren prestakuntza-jarduerak, eta ikastetxeak 2025-2026 ikasturterako egiten duen urteko plangintzan egon beharko dute.

Era berean, deialdi hau Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza 4226 Programaren barruan dago.

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren

eraldaketak gidatu behar dituen tresna gisa 2022ko azaroaren 7an onartutako Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren hedapen eraginkorrean, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako eta udal titulartasuneko ikastetxeetako dei egiten die, irakasleen bitartez, haren gaitasunak sendotzen dituzten jardueretan eta proiektuetan parte har dezaten, teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneei erantzuteko. Lanbide Heziketako 6. Euskal Planak giza garapen iraunkorraren, pertsonen talentua bultzatzearen eta ikaskuntza-eredu aurreratuaren aldeko apustua egiten du, hori guztia ingurune produktibo, teknologiko eta digital berri baten erronkei erantzuteko. Era berean, euskal lanbide-heziketak eraldaketarako eta berrikuntzarako eragile gisa duen zeregina sendotzen du, funtsezkoa baita pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, euskal enpresen lehiakortasunerako eta garapen jasangarria bultzatzeko.

Ildo horretan, Lanbide Heziketako 6. Euskal Planak zenbait helburu eta jarduerari ildo ezartzen ditu, honako eremu estrategiko hauetan integratuta: teknologia, digitalizazioa eta sistema adimendunak, berrikuntza estrategikoa eta eraldaketa disruptiboa, adimenaren kudeaketa 5.0 lanbide-heziketako zentroetan, bioteknologia, birsorkuntza eta ongizatea, giza garapena, adimen 5.0 lanbide-heziketako zentroak eta Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren nazioartekotzea.

Egoera horrek eskatzen du lanbide-heziketako ikastetxeak osatzen dituzten pertsonen gaitasuna prestakuntza aurreratu, moderno, disruptibo, zehatz eta pertsonalizatuaren bidez gauzatu behar izatea, gaitasun teknikoak eta trebetasun pedagogikoak maila zorrotzenetan mantenduko direla bermatzeko, eta 4.0 eta 5.0 industriaren eta garapen teknologiko berrien munduan sortzen diren premietarako erantzun azkar eta malguak emateko gai izateko ezinbesteko zereginarekin.

Jarduera-esparru horretan, Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren 7 orientazio-ardatz estrategikoak lortzera bideratutako prestakuntza-jarduerak sustatuko dira, lehen aipatutako eremuetan.

Era berean, prestakuntza-jardueren bidez integrazioa sustatuko da, bai genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak, bai hizkuntza-normalizazioari laguntzen diotenak, euskararen erabilera sustatuz eta bultzatuz.

Hona zer baldintza bete behar diren 2025-26 ikasturtean Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako eta udal titulartasuneko ikastetxeetako irakasleak prestatzeko jarduerak diruz hornitzea lortzeko:

## **1.- Prestakuntza-jardueren esparru orokorra.**

1.-Deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak Ikastetxeko Prestakuntza Planaren prestakuntza-premiak hautematearen ondorio izango dira, eta, ahal dela, Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren 7 ardatz estrategikoei lotuta egongo dira.

2.- Ikastetxeko zuzendaritzak hautatuko ditu Ikastetxeko Prestakuntza Planeko prestakuntza-jarduera guztiak, deialdi honetan finantzatzeko aurkeztuko direnak.

## **2.- Prestakuntza-jarduerak bete beharreko baldintzak.**

1.--Prestakuntza-jarduerak ikastetxeko irakasleen praktika eta lanbide-garapena hobetzen lagundu behar dute, eta honako irakaskuntza hauek ematen dituzten irakasleei zuzenduta dago: erdi-mailako, goi-mailako edo oinarrizko lanbide-heziketakoak; espezializazio-ikastaroak; eta lanbide-ziurtagiriak. Horiek guztiek lotura izan behar dute zentroak 2025-2026 ikasturterako duen prestakuntza-eskaintzarekin.

2.- Finantzaketa eskatzen duen ikastetxeko irakasleek parte hartuko dute prestakuntza-jardueretan. Era berean, ikastetxe arteko jarduerak egin ahalko dituzte honako baldintzaren bat betetzen duten ikastetxeek:

- Lurralde historiko berdineko ikastetxeak izatea.
- Lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak izatea.
- Ikastetxeek proposatutako prestakuntza-jarduerak zeharkakoak izatea.

3. - Ikastetxeen arteko jardueretarako eskaeraren ikastetxe titularra izango da prestakuntza-jarduera horiek gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko den bakarra.

4.- Ikastetxe bakoitzak eskari bakarra aurkeztuko du, eta hor ordenatu beharko ditu prestakuntza-ekintzak lehentasun-ordenaren arabera.

Baldin eta 9.4 artikulua araberaren arabera onartutako prestakuntza-jarduerari emandako kopuru osoak eskuragarri dagoen kreditua gainditzen badu, ikastetxe bakoitzean gehieneko jarduera kopuru bat lagunduko da diruz, ematen duen prestakuntza-ziklo kopuruaren arabera. Gehieneko kopuru hori tarte hauetan ezarritakoaren arabera zehaztuko da:

- |  |                          |
|--|--------------------------|
| - 11 prestakuntza-ziklo baino gutxiago | 8 prestakuntza-jarduera  |
| - 11 eta 15 prestakuntza-ziklo artean  | 10 prestakuntza-jarduera |
| - 16 eta 20 prestakuntza-ziklo artean  | 12 prestakuntza-jarduera |
| - 20 prestakuntza-ziklo baino gehiago  | 14 prestakuntza-jarduera |

Kopuru horretan ez dira kontuan hartuko ikastetxe arteko jarduerak.

Jarduera bererako bi talde eratzen direnean, bi prestakuntza-jarduera balira bezala hartuko dira.

5.- Prestakuntza-jardueretan gutxienez 8 irakaslek hartu behar dute parte, oro har. Ikastetxe bat kopuru horretara iristen ez bada, ikastetxe arteko jarduerak proposatu beharko ditu.

Salbuespen gisa, lurralde historikoko 2 ikastetxetan bakarrik ezarritako prestakuntza-ziklo bati dagokion jarduera bada edo EAEn ezarri berria bada eta hau bada ematen duen lehenengo edo bigarren urtea, gutxienez 4 irakaslerekin hautatu ahal izango dira jarduerak.

6.- Prestakuntza-jarduera bakoitzak gutxienez 10 orduko iraupena izango du eta gehienez 35ekoa, 9. puntu jasota dauden atzerriko hizkuntzan emango diren hizkuntza-prestakuntzako jarduerak izan ezik. Prestakuntzaren orduak on-line (sinkronoak edo asinkronoak) edo aurrez aurre izan daitezke:

Ordu sinkronoetan emaila eta prestakuntzako partaidea une berean arituko dira lanean, eta aurrez aurreko edo lineako prestakuntza izan daiteke.

Ordu asinkronoetan emailearen eta ikastaroko partaidearen arteko elkarreragina une eta gune desberdinetan egiten da.

7.- Nahitaezkoa izango da prestakuntza-jarduerak deialdiaren aurreko bi ikasturteetan diru-hornidurarik eskuratu ez izana xede berdinerako, betiere, ikastetxe berean izan badira eta izenburu edo eduki bera bazuten. Alde horretatik, zenbait urtetarako jarduerak (ikasmaila bat baino gehiago irauten dutenak) izendatzeko, mailak erabili ahalko dira; gehienez, hiru.

Aurreikuspen hori ez da ezarriko dirulaguntza eman ondoren uko egin duten ikastetxeetan.

8.- Diruz lagundu beharreko prestakuntza-jarduerak ez dute izan behar sexuagatiko diskriminatzailea.

9.- Atzerriko hizkuntzan eskatu daitezke prestakuntza-jarduerak. Horretarako, ikastetxe bereko edo ikastetxe arteko 8 irakaslek osatutako talde bat eratuko da gutxienez, eta irakasleek A2 gaitasun-maila izango dute eta goragoko bat lortu nahiko dute. Prestakuntza-jarduera 100 ordukoa izango da gutxienez, eta ikasturte barruan izango da.

Parte hartzen duten irakasleek Hizkuntza Eskola Ofizialeko probara aurkezteko konpromisoa hartzen dute, jasotako prestakuntza-orduen (B1, B2...) maila aztertzeke.

### **3.- Finantza daitezkeen gastuak.**

- Ikastetxe eskatzailekoak izan gabe prestakuntzan aditu diren pertsonak edo erakundeak kontratatzearen ondoriozkoak.
- Prestakuntza-jardueren garapenaren ondoriozko ezinbesteko materialak erostea.

### **4.- Finantzatuko ez diren gastuak.**

- Ekipamenduen inbertsioa eta amortizazioa.
- Prestakuntza jasotzen duten irakasleen joan-etorriak.
- Ikastetxearen funtzionamendu-gastu arruntak.
- Lokalak kudeatzeko eta alokatzeko gastuak.
- Prestakuntza emateko beste batzuk: matrikulen ordainketa, prestakuntzan adituak direnen egonaldiak, etab.

Gehienez 110,00 euro emango da emandako ordu bakoitzeko.

### **5.- Ikastetxeko antolamendua.**

1.- Ikasketaburuaren ardura Ikastetxeko zuzendaritza taldea izango da prestakuntza-jarduerak abian jarraraztea, baita haiek koordinatzea ere, dela zuzenean, dela irakasle bat prestakuntzaren koordinatzaile izendatuta.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak prestakuntza-jarduerak praktikan jartzen direla

zaindu behar du, eta jarduera horiek koordinatu behar ditu, bai pertsonalki, bai prestakuntza-koordinatzaile gisa irakasle baten esku utzita.

Koordinatzaile bat izendatzen badu, aldi-an-aldian, jardueren bilakaerari buruzko informazioa emango dio hark. Gainera, koordinatzailea zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahalko da jarduerekin zerikusia duten gaiak aztertzen direnean.

2.- Koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahalko ditu ikastetxeak, proiektuan betetzen duten eginkizunarekin bateragarriak izan daitezten: bai eskola-orduen kopurua, bai horien banaketa. Horretarako, betiere, dagozkion ikasketei buruzko ikasturte-hasierako zirkularretako arauak beteko ditu, eta aintzat hartuko du ikastetxearen ordutegi-aukera.

3.- Baldin eta jarduerak lanera ez joatera behartzen badituzte irakasleak, ez da jarriko ordezkorik.

## 6.- Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Elektronikoki bidaliko dira eskaerak, dagozkien formularioekin batera, ikastetxe publikoentzako -[Herri-ikastetxeak / Deialdiak](#)”atariaren bidez.

Eskabideak aurkezteko azken eguna: **2025eko ekainaren 4a**, barne.

## 7.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

- A formularioa: eskabidearen formularioa, dirulaguntza eskatzen den prestakuntza-jardueren zerrenda duena, bakoitzaren oinarriko informazioarekin.
- Ikastetxearen Prestakuntza Plana
- A1 eranskina: «Prestakuntza-jardueraren fitxaren» eranskina, proposatutako jarduera bakoitzeko.
- A2 eranskina: Ikastetxeko prestakuntza-planarekin batera, A2 eranskin hau entregatuko da, balorazio-irizpideen arabera puntuatua izateko.
- A3 eranskina: «Klaustroaren akta» daukan eranskina; bertan, berriaz jasoko da klaustroak prestakuntza-jardueren berri baduela, eta bere gain hartzen dituela jarduera horiek parte-hartzaileengan izan ditzakeen ondorio pertsonalak eta ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzakeenak. Prestakuntza ikastetxe artekoa bada, ikastetxe bakoitzeko eranskin bat aurkeztuko da.
- A4 eranskina: Eskola arteko prestakuntza-jardueretan «Ordezkaritza ematea» jasotzen duen eranskina.
- A5 eranskina: “Ordezkaritza-organo gorenaren akta / Gizarte Kontseilua”. Adieraziko du Ordezkaritza Organo Gorena bat datorrela eskaerarekin, baduela proposatzen diren jardueren berri, onartu egiten dituela eta, orobat,

hitzematen duela proiektua aurrera eramateko beharrezko neurriak hartuko dituela eta, onartzen badira, Ikastetxeko Urteko Plangintzan sartuko dituela.

## 8.- Prestakuntza-jarduerak baloratzeko irizpideak.

1.- Prestakuntza-jarduerak banan-banan baloratuko dira, deialdi honetako eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Gai orokorrak (gehienez, 2 puntu):

a.1. Justifikazioa eta helburuak: prestakuntza-jardueraren helburuak zehaztasunez justifikatzen badira, helburu orokorrak eta espezifikoak adierazita (0,7 puntu).

a.2. Edukiak: irakatsi eta ikasteko prozesuaren objektuak eta formak zehaztasunez eta jardueraren helburuekiko koherentziaz zerrendatzen badira: (0,3 puntu).

a.3. Prestakuntza-ekintzaren ebaluazioa: ebaluazio-tresnak adierazten badira (lanak, kontrolak, inkestak...): (0,5 puntu). Ebaluazio-irizpideak azaltzen badira: (0,5 puntu).

b) Ikastetxeko prestakuntza-plana (gehienez, 3 puntu):

Irakasleek epe ertainean dituzten prestakuntza-beharrak finkatuko ditu Prestakuntza Planak, ikastetxearen helburuen arabera ordenatuta, eta urteko plangintzan egon beharko da.

b.1. Prestakuntza Planak bi urteko iraupena badu (2024-2026 edo 2025-2027): Puntu bat.

b.2. Prestakuntza Planak zehazten baditu ikastetxean nola gauzatuko den eta zer eragin izango duen ebaluatzeko erabiliko diren tresnak eta irizpideak: Puntu bat.

b.3. Prestakuntza-planak hasierako prestakuntza-jarduerak desberdinduta baditu bitarteko edo ordezkotako irakasleentzat: Puntu bat.

c) Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean oinarritutako jarduerak, eta, beraz, honako orientazio-ardatz estrategiko hauetako batekin edo gehiagorekin lotutakoak: (gehienez 4 puntu)

c.1. Teknologia, digitalizazioa eta sistema adimendunak (eraldaketa digitalarekin eta garapen teknologiko eta adimentsu aplikatuarekin lotutako jarduerak, hala nola prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan teknologia aurreratuak erabiltzea): bat puntu.

c.2. Berrikuntza estrategikoa eta eraldaketa disruptiboa (berrikuntza disruptiboarekin eta ingurune estrategikoetan aplikatutako berrikuntzarekin lotutako jarduerak): bat puntu.

c.3. Adimenaren kudeaketa lanbide (adimen aplikatuaren kudeaketarekin, konplexutasunaren kudeaketarekin eta aldaketaren kudeaketarekin lotutako jarduerak): bat puntu.

- c.4. Bioteknologia, berroneratzea eta ongizatea (biozientziekin eta jasangarritasunarekin lotutako jarduerak eta LHko zentro iraunkorrak): bat puntu.
  - c.5. Giza garapena pertsonak, eraldaketaren protagonista (errendimendu handiko prestakuntzarekin, giza dimentsioarekin, genero-berdintasunarekin, prestakuntza inklusiboarekin, prestakuntzako eta ikaskuntzako metodologia aktibo-kolaboratiboekin, irakasleen sormen-gaitasuna, gaitasun berritzailea eta pentsamendu eraikitzailea indartzearekin, STEAM kulturarekin eta lanbide-orientazioarekin lotutako jarduerak): bat puntu.
  - c.6. LH 5.0eko ikastetxe adimendunak (LHko ikastetxe-eredu berriarekin lotutako jarduerak): bat puntu.
  - c.7. LHko euskal sistema nazioartekotzea (Lanbide Heziketako euskal sistema nazioartekotzea): bat puntu.
- d) Honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada (gehenez 2 puntu):
- d.1. Ikastetxe arteko prestakuntza-jarduerak: Puntu bat.
  - d.2. Ziklo ezarri berria (zikloa ezarri den lehen edo bigarren urtea): Puntu bat.
  - d.3. Ziklo berezia (gehenez ere lurralde historiko bereko bi ikastetxetan ezarritako zikloa): Puntu bat.
- e) Euskaraz ematekoak diren prestakuntza-jarduerak (1 puntu).
- f) Aurrekontua: aurkezten den aurrekontuaren egokitasuna orduko eta tokiko kostu unitarioari dagokionez. Kostu handiagoarekin, puntuazio txikiagoa (gehenez 2 puntu).
- g) Irakaskuntzan genero-ikuspegia sartzeko, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko jarduerak: Puntu bat.

## 9.- Diru-hornidura esleitzeko prozedura.

- 1.- Puntu gehien lortzen dituzten prestakuntza-jarduerak bakarrik hornituko dira diruz, harik eta deialdi honetarako aurrekontu-kredituak agortzen diren arte edo indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuetan egiten diren eguneratzeetatik ateratzen direnak agortzen diren arte.
- 2.- Prestakuntza-jarduerak baloratutakoan, ordenatu egingo dira, kontuan hartuta zenbat puntu lortzen dituzten guztira 8. artikuluko baremoaren arabera.
- 3.- Emandako puntuazioan berdinketa egonez gero, lehentasun hau emango da:
  - Hasteko, aurreko artikuluko 1.C apartatuan puntuaziorik altuena lortu duten jarduerak;
  - Bigarrenik, euskaraz egingo diren jarduerak (1.E.);

- Eta hirugarrenik, eskola arteko jarduerak, eskolakoekin alderatuta (1.D).

4.- Gutxienez honako puntu kopurua lortzen duten prestakuntza-jarduerak bakarrik lagunduko dira diruz: 6 puntu.

## 10.- Ebazpena.

Ikastetxe interesatuei **2025eko irailaren 9a** baino lehen jakinaraziko zaie ebazpena, bitarteko elektronikoak erabilita, "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" bidez.

## 11.- Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

1. Finantzatzen diren prestakuntza-jarduerak honakoetan sartzea: ikastetxeak 2025-26 ikasturtean izango duen urteko planean eta ikastetxeak ikasturte horretan izango duen prestakuntza-planean.

2. Prestakuntzaren edozein aldaketa Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari jakinarazteko konpromisoa hartzea, aldaketa egin baino 15 egun lehenago gutxienez. bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako edozein aldaketa ere., eta, hala badagokio, helburu bererako edozein diru-sarrera edo baliabideak lortu izana; horrek berarekin ekarri ahal izango du ebazpena aldatzea, betiere haren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

3. Dagokion jarduerako aktan (D2 eranskina), irakasle taldeak prestatzeko jardueren emaitzak erregistratzea. Behin betiko akta itxia izango da, eta ezingo da aldatu gerora, salbu eta akatsik badago edo zerbait aipatzen ez bada; edonola ere, aldaketak justifikatu egingo dira, dokumentuen bidez. Prestakuntza-jarduera bakoitzeko amaierako akta bakarra aurkeztuko da, eta artikulua honetako 4. puntuan adierazitako dokumentuetan oinarrituko da.

Amaierako aktan (D2 eranskina) A1. eranskinean dauden partaide guztiak egongo dira, dagokion partaidetzaren %arekin.

4. Prestakuntza-saioetara joango diren pertsonen bertaratze-kontrola egitea, honela:

a) Ordu sinkrono presentzialak: sinaduren kontrol-orrien bidez (D3 eranskina).

b) Ordu sinkrono ez-presentzialak (online): 1. eta 2. ataletan ezarritako ebidentziak jaso beharko dira, eta, plataformak sortzen baditu, 3. atalean ezarritakoak:

1. Prestakuntza-saio bakoitzaren pantaila-argazkia, parte-hartzaileak bertaratu direla adierazten duena.

2. Saio ez-presentzialen plangintza eta pertsona bakoitzak saio bakoitzean duen bertaratzea (bai edo ez) jasotzen dituen klase-emailearen adierazpena (D5 eranskina).

3. Eta erabilitako plataformak sortuz gero, plataformaren konexioen erregistroa pertsonak, datak eta konexio-denborak identifikatuta.

c) Ordu asinkronoak: prestatzaileak zinpeko adierazpena egin beharko du (D4 eranskina).

5.- Bertaratzearen kontrola egiteko erabilitako dokumentu guztiak ikastetxean 5 urtez gordetzea eta mantentzea, eta Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren edo zuzendaritza horren bidez eska ditzaketan organoen esku jartzea.

6.- Prestakuntza-jarduera bakoitzerako koordinatzaile bat izendatzea. Pertsona hori izango da ikastaroa kudeatzearen arduraduna, eta honako hauek egin beharko ditu, besteak beste:

a) Artikulu honetako laugarren betebeharrean adierazitako bertaratze-kontrolerako erabilitako erregistroak jasotzea.

b) Amaierako akta egitea (D2 eranskina).

c) Amaierako memoria egitea (D1 eranskina), hasierako aurreikuspenarekiko egondako aldaketa guztiekin.

7.- Emandako dirulaguntza justifikatzea 12. artikuluan jasotakoaren arabera.

8.- Dirulaguntza, eman den xederako erabiltzea.

9.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoari publizitate egokia ematea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluan xedatuaren arabera.

## **12.- Diru-horniduren erabileraren justifikazioa.**

1.- Ikastetxe onuradunek finantzaturako prestakuntza-ekintzak amaitzen ari diren heinean eta, dena dela, **2026ko uztailaren 15a** baino lehenago, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bidez:

a) Prestakuntza-ekintzaren amaierako memoria (D1 eranskina):

- prestakuntza-ekintza bakoitzean lortutako emaitzak eta garapena jaso behar ditu. Aurreikusitako helburuei dagokienez, modu kuantitatiboan ere adieraziko da.
- sartu diruz lagundutako jardueraren balantze ekonomikoa. Memoria ekonomiko horretan, jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua jasoko da, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, aurrekontuarekiko desbideratzeak, bai eta diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera batzuen xehetasuna ere, zenbatekoa eta jatorria adierazita. A1 eranskinean eskatutakoaren artean onartutakoekin

hertsiki bat ez datozen gastuak D1 eranskinako 5. puntuari justifikatu beharko dira ("Egindako gastuak"), gastu horiek eragin dituzten arrazoiak eta prestakuntza-jarduera behar bezala garatzeko gastuen beharra adierazita.

- b) Hartu-agirien, fakturen eta, legez onartuta egonda, emandako dirulaguntzari egotz dakioken beste edozein gastu-frogagiriren kopiak.
- c) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren amaiera akta (D2 eranskina) behar bezala beteta eta ikastetxeko zuzendariaren sinadurarekin.

### **13.- Diru-hornidura itzultzeko arrazoiak.**

- a) Jardueren jarraipenetik eta ikastetxe onuradunek aurkezten dituzten memorienetik (amaierakoarenetik eta ekonomikoarenetik) ondorioztatzea ez direla lortu gutxieneko helburuak.
- b) Finkatutako edozein eginbehar edo eskakizun ez betetzea.

### **14.- Diru-hornidura txikitzeko arrazoiak.**

- a) Dirulaguntza eman zireneko baldintzak aldatu egin direla esango da, prestakuntza-jardueretara azkenean doan kide kopurua hasierako eskabidean adierazitako partaideen % 60ra iristen ez bada.

Horren ondorioz, ebazpena aldatu egingo da, betiere 2.5 artikulua finkatutako 8 partaideko gutxieneko kopurua mantentzen bada, artikulua horretan jasotzen diren salbuespenekin.

Ez-betetzat hartuko da gutxienez 8 parte-hartzaile ez izatea, eta itzulketa-prozedura hasiko da, aurretik jasotako salbuespenari kalterik egin gabe.

Ehuneko hori ezarrita zenbaki hamartar bat emanaz gero, behera biribilduko da.

- b) Ikasturtea laburragoa bada dena delakoagatik, horniduraren zenbatekoa proportzioan jaitsiko da. Betiere, ematen den ordu bakoitza 110 euroz hornituko da gehienez.

### **15.- Irakasleen parte-hartzearen ziurtapena.**

Ikasturte amaieran, Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako Lurralde Unitateak honako dokumentuak bidaliko dizkio Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari:

- a) Ikastetxeen zerrenda, jardueren helburuak zenbateraino lortzen diren adierazita.

- b) Prestakuntza-jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda. Zerrendako kide bakoitzak guztira egiten dituen orduak eta bertaratze-ehunekoa adieraziko ditu.
- c) Irakasleek prestakuntza-jarduera bakoitzean duten parte-hartzea ontzat ematen bada, Hezkuntza Sailak irakasleentzat dituen berrikuntza- eta prestakuntza-jardueren datu-basean erregistratuko da, parte-hartzaileen bertaratzeaz jasotako informazioaren arabera.
- d) Prestakuntza-jarduera gaindituztat erregistratuko bada, bertaratzea % 80tik gorakoa izango da.
- e) Aipatutako datu-basearen bidez, Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagiria eskuratu ahalko dute interesdunek.

## **16.- Datu pertsonalen babesa.**

Datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Erakunde laguntzaileentzako eta lanbide-heziketako ikastetxeentzako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Departamentua.

Helburua: Dirulaguntzen eskabideak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Erakunde laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

- Legezko betebeharrak aplikagarriak betetzeko beharrezko tratamendua.
- Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako misioa betetzeko beharrezko tratamendua.

Hartzaileak:

- Europar Batasuneko organoak
- Estatuko Administrazioeko beste organo batzuk
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk
- Europako Batzordeak

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere ([www.euskadi.eus/servicios/10842/](http://www.euskadi.eus/servicios/10842/)).

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua gure web orrian kontsulta dezakezu: [www.euskadi.eus/klausula-informatiboak/web01-sedepd/es/transparencia/039900-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/klausula-informatiboak/web01-sedepd/es/transparencia/039900-cap2-es.shtml)

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679 & from = ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
- Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

Vitoria-Gasteiz,

Sin.: Inge Gorostiaga Luzarraga  
Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria